MUSULMANAK EUSKAL HERRIAN



Aurreko orrialdeetan ikusi duzun bezala, Gibraltarren lehorreratu eta handik urte gutxira, Iruñera heldu ziren musulmanak. Ebro ibarra ere gobernatu zuten. Horregatik izan zen Nafarroako hegoaldea Al Andalusen parte (Al Andalus deitzen zioten musulmanek beren menpe zeukaten penintsulako lurraldeari). Musulmanek Tutera sortu zuten 800. urtean. Okupazio hark, DVDan ikusi duzun bezala, bere arrastoak utzi zituen Nafarroako Erreinuan.

Musulmanen eta euskaldunen arteko harremanetan gorabehera handiak izan ziren. Zenbaitetan elkartu egiten ziren, elkarren interesak babesteko; beste zenbaitetan, berriz, aurkari izan ziren.

- **Nafarroako zer ibairen ibarra gobernatu zuten musulmanek?**

- **Nola deitzen zioten musulmanek beren menpe zuten penintsulako lurraldeari?**

- **Nork eta noiz sortu zuten Tutera?**

- **Nolakoa izan zen musulmanen eta euskaldunen arteko harremana?**

LIVEWORKSHEETS